

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**Diputatu Kontseiluaren 17/2016 Foru dekretua, otsailaren 9koa, Ingurumen eta Hirigintza Sailaren egitura organiko eta funtzionala onartzen duena**

Foru Administrazioan administrazio antolaketa ezartzeko eskumena Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak du bere gain, halaxe xedatzen baitute Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak, Autonomia Erkidego Osoko Erakundeen eta Bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen Arteko Harremanei buruzko Legeak, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak, eta Biltzar Nagusiek onartutako erakunde arautegiak.

Ahalmen hori erabiliz, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Araua onartu zen, Arabako Foru Aldundiaren Antolamenduari, Funtzionamenduari eta Lege Araubideari buruzkoa. Horren babesean, diputatu nagusiak Arabako Foru Aldundiaren egituraren barneko sailak eta horiei dagozkien gaiak zeintzuk diren ezarri zituen uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez.

Hona hemen Ingurumen eta Hirigintza Sailari egokitu zaizkion eskumen alorrak: Uraren ziklo osoa; nekazaritzako azpiegitura hidraulikoak izan ezik; Ingurumena eta paisaia; Naturaren zaintza; Naturaguneak; Energia berriztagarriak; Biodibertsitatea eta fauna eta flora espezie babestuak; Lurralde plangintza eta informazioa; Hirigintza kudeaketa eta diziplina; Ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak.

Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta araubide juridikoari buruzko Foru Arauaren 38., 40., 70. eta 73. artikuluetan eta horiekin zerikusia dutenetan ezartzen dira sailei oro har ematen zaizkien ahalmen eta eskuduntzak, eta aipatu alorretan ere marko horren barruan jardungo du administrazioak.

Ingurumen eta Hirigintza Sailaren eskumenak eta eskuduntzak ezarri ondoren, foru dekretu honek sail horren egitura zehazten du, horri buruzko txostenak kontuan hartuz eta diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuan (irailaren 5eko 132/2015 Foru Dekretuak aldatua) xedatutakoa betez.

Horregatik guztiagatik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

#### XEDATZEN DUT

#### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILAREN EGITURA

#### I. KAPITULUA

#### XEDAPEN OROKORRAK

##### **1. artikulua. Jardun eremuak**

1. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumenak ditu ondoko alor hauetan: uraren ziklo osoa, nekazaritzako politika hidraulikoak izan ezik, ingurumena eta paisaia, naturaren zaintza, naturaguneak, energia berriztagarriak, biodibertsitatea eta flora eta faunako espezie babestuak, lurraldearen antolamendua, hirigintza planeamendua, kudeaketa eta diziplina, eta lurralde informazioa; eta araubide juridikoak adierazten dituen gainontzekoak, horrela xedatzen baitu diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuak (diputatu nagusiaren uztailaren 6ko 136/2015 Foru Dekretuak aldatua), Arabako Foru Aldundiaren sailak eta horien eskumen arloak finkatzen dituenak.

**2. artikulua. Egitura**

Aurreko artikuluan adierazitako jardun eremuei buruzko eginkizunak eta eskumenak betetzeko, Ingurumen eta Hirigintza Sailean ondorengo organoak bereiziko dira, eta denak saileko titularra den foru diputatuaren zuzendaritzapean egongo dira, erantsitako organigramarekin bat etorriz:

Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritza; horri atxikita daude:

a) Ingurumen eta Hirigintzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua.

b) Natura Ondarearen Zerbitzua; horren menpe daude:

– Naturaguneen eta Biodibertsitatearen Atala

c) Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzua; horren menpe daude:

– Ingurumen Ebaluazioaren Atala

d) Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua; horren menpe daude:

– Obra Hidraulikoen Atala

– Ingurumen Prebentzioaren Atala

e) Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzua; horren menpe daude:

– Hirigintzako Planeamendu, Kudeaketa eta Diziplina Atala

– Lurralde Informazioaren Atala

**3. artikulua. Sailari atxikitako erakundeak eta organismoak**

Ingurumen eta Hirigintza Sailari atxikita daude, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren bitartez, ondoko erakunde, sozietate eta entitateak, aldundiaren entitate erregistroan jasotzen den zenbakiarekin identifikatuta eta diputatuak zein zuzendariak Arabako Foru Aldundiaren ordezkariak dutena hauetan:

ERAKUNDE ZK.	IZENA
112	Gorbeia Parke Naturalaren Patronatua
120	Valderejoko Parke Naturalaren Patronatua
196	Izkiko Parke Naturalaren Patronatua
80	Hirigintza Batzordea
339	Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen Kontseilua.

**4. artikulua. Diputatuaren eginkizun orokorrak**

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatu titularri dagokio saila zuzendu eta ordezkatzeari, eta, haren eskumenera berezko gaiei dagokienez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren, Arabako Foru Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta lege araubideari buruzkoaren, 40. artikuluan foru diputatuei esleitzen zaizkien eskurantzak erabiltzea, bai eta sailari dagozkion eginkizunen eta jardun eremuen esparruan araudiak ematen dizkion gainerako beste guztiak ere.

Foru diputatuak eginkizun hauek ere baditu:

a) Gorbeia, Valderejoko eta Izkiko parke naturalen patronatuetako burutza izatea, eta Aizkorri-Aratzeko eta Urkiolako parke naturalen patronatuetan parte hartzea.

b) Arabako Foru Aldundia ordezkatzeari Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Batzordean, Uraren Euskal Agentzian (URA), Euskal Herriko Ingurumen Batzordean eta Jasangarritasunerako Euskal Udalerrien Sarean (Udalsarea 21), bai eta Arabako Foru Aldundiak, bere estatutuei jarraituz, parte hartzen duen urak kudeatzeko erakundeetan.

c) Jendaurrean jarri aurretik onartzea, Kontserbazio Bereziko Ereemuak (KBE) kudeatzeko jarraibide eta neurrien dokumentuak.

d) Ingurumen eta Hirigintza Sailari egotzi zaizkionak eta haren menpeko beste erakunde edo organoren bati eman ez zaizkionak.

e) Sailaren plan estrategikoa diseinatzea.

f) Sailari atxikita dauden sozietate publikoak eta gainerako erakundeak zuzentzea, dekretu honetan eta arlo horretako berariazko legeetan ezarritakoaren arabera.

#### **5. artikulua. Zuzendaritzaren eginkizun orokorrak**

1. Zuzendaritzari dagokio, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren, aldundiaren antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoarenaren, 75. artikuluan eta horrekin zerikusia daukatenetan aipatzen diren gainerako eginkizun ez gain, ondorengo hauek gauzatzea:

a) Indarreko xedapenek administrazio prozeduretan emandako eginkizun espezifikoek gain, zuzendaritzari dagokio: bere eskumen arloko jardunaren ekimen eta sustapen orokorra egitea, saileko titularrak ezarritako ildoek jarraituta, eta atxikita dituen zerbitzu eta atalen jarduketan sustapena, kontrola eta koordinazioa egitea.

b) Ordezkaritza eginkizunak egitea, goragokoek egindako proposamenei buruzko txostenak egin, proposamen horiek aztertu, horren inguruko aholkuak eman eta proposamenak gauzatzea, menpean dituen barne organoen jarduketak zuzenduta eta koordinatuta.

c) Saileko foru diputatuaren deskontzentrazioz, bere eskumenerako alorretan zigortzeko ahalmena erabiltzea.

d) Bere zuzendaritzak berezko dituen alorretan erakunde eta entitate publiko edo pribatuekin lankidetzatza hitzarmenak proposatu eta garatzea.

e) Beren eskumenerako arloko unitateei dagozkien gaiak bideratu eta kudeatzea.

f) Sailean garatzen diren proiektu estrategikoen ekintzak koordinatzea

g) Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren eskuordetzaz finkatzen direnak

h) Plan estrategikoa betetzen dela bermatuko duen ekintza plana diseinatzea eta jarraipena egitea.

i) Arabako Foru Aldundia ordezkatzea izendapen dekretuan finkatu diren erakunde, entitate, sozietate eta elkarteetan.

j) Eman beharreko administrazio ebazpenak ematea, proiektu publiko zein pribatu jakin batzuk ingurumen eraginaren ebaluazioaren pean jarri behar diren ala ez erabakitzeko, baita plan eta programa jakin batzuk ere ingurumen ebaluazio estrategikoaren pean jarri behar diren ala ez erabakitzeko, baldin eta arlo horretako indarreko eta berariazko araudiaren arabera erabaki hori arrazoitua eta publikoa izan behar bada.

k) Zuzendaritzaren barruan gardentasuna, herritarren partaidetza eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen erabilera sustatzea.

l) Sailari dagozkion gaiei buruzko berariazko programetan parte hartzea sustatu, koordinatu eta zuzentzea.

m) Zuzendariaren eginkizunak bere zuzeneko menpekoengan eskuordetu ahalko dira, azaroaren 26ko 30/1992 Legean adierazten diren baldintzen eta egoeren arabera.

#### **6. artikulua. Administrazio unitateen buruen eginkizun orokorrak**

Dekretu honetan arloaren arabera zehazten diren eginkizun ez gain, administrazio unitateen buruek eginkizun orokor hauek dituzte:

a) Beren ardurapeko administrazio unitateei dagozkien gaiak zuzentzea eta kudeatzea eta beren eskumenerako arloetan ebazpen proposamenak prestatzea.

b) Beren nagusia den zuzendariari laguntza teknikoa ematea, hau da, saileko foru diputatu titularrari, hala behar izanez gero, kasuan kasuko unitatearekin loturiko gaietan.

c) Unitatearen urteko aurrekontuaren proposamena eta jardueren memoria prestatzea.

d) Giza baliabideen hornidurari buruzko proposamenak egitea eta beren langileen zuzeneko burutzan aritzea, besteak beste, eginkizun hauek dituela:

ordutegia betetzen dela kontrolatzea

– baimenak eta lizentziak kontrolatzea,

– egitekoak eta lanak banatu eta gainbegiratzea, eta haien erantzukizuna izatea.

e) Unitateko bulegoen barne araubideari arreta eskaintzea eta zaintzea, eta haietako ondasun higigarriak eta higiezinak administratzea eta zaintzea.

f) Sailaren Plan Estrategikoan ezarritako helburuak lortzeaz erantzule izatea.

g) Parte hartzea kasuan kasuko ekintza planak prestatzen eta gauzatzen.

h) Arautegi organikoetan eta Foru Aldundiaren erabakietan agintzen zaizkien gainerako eginkizunak.

i) Zerbitziburuen eginkizunak honakoak dira: azterlanak, txostenak, aholkularitza, proposamenak, programen kudeaketa eta jarduerak gauzatzea bere eskumenari egotzitako alorretan, arautegi organikoetako eta foru dekretu honetako aurreikuspenen arabera.

j) Atalburuen eginkizunak dira bakoitzaren unitate organoari dagozkion gaietan azterlan, txosten, kudeatze, aholkatze eta proposamenak egitea, eta hala behar izanez gero espedienteak bideratu eta izapidetzea. Zerbitziburu bakoitzak agintzen dizkien gainerako eginkizunak ere bete behar dituzte.

### **7. artikulua. Kontratazio mahaia**

Ingurumen eta Hirigintza Sailean kontratazio mahaia iraunkor bat egongo da, eta sailak bere eskumenen arloan prozedura irekian zein murriztuan egiten dituen kontratu guztietan ariko da.

Kontratazio mahaia kide hauek osatuko dute:

– Lehendakaria: Ingurumen edo Hirigintza zuzendaria edo hark eskuordetzen duena.

– Idazkaria: Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Mahaikideak: Kontratazioa proposatzen duen zerbitzuko bi funtzionario.

– Bi mahaikide, kontratazio organoaren lege aholkularitza eta kontuhartzaitelza dagozkien administrazio unitateek izendatuak.

## II. KAPITULUA

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA ZUZENDARITZAREN ESKUMENAK

#### **8. artikulua. Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritza**

Ingurumen eta Hirigintza zuzendariari dagokio abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren, Arabako Foru Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta lege araubidearenaren, 75. artikuluan eta harekin bat datozenetan zuzendariari esleitzen zaizkien eskumen orokorrez baliatzea, baita sail horri dagozkion eginkizunen eta jardun eremuen esparruan araudiak egozten dizkion beste guztiak ere, lehengo 5. artikuluan adierazten den bezala.

Horrez gain, Ingurumen eta Hirigintza zuzendariari berariazko eskumen hauez baliatzea dagokio:

1. Sailari esleitu zaizkion eskumenak gauzatzeko beharrezkoak diren araugintza jarduerak kudeatu, proposatu, garatu eta betearaztea ondoko arlo hauetan:

- Naturaren zaintza.
- Ekosistemek ematen dituzten zerbitzuak ebaluatu eta kudeatzea
- Habitatak, basa landaredia eta basa fauna
- Naturaguneak eta Natura 2000 Sarea
- Zaintza
- Baliabide naturalak planifikatu eta antolatzea.
- Paisaiaren babesa, kudeaketa eta antolamendua.
- Uraren ziklo osoa kudeatzea.
- Azpiegitura hidraulikoak planifikatzea.
- Hiri Hondakinen azpiegiturak planifikatzea.
- Hiri hondakinak kudeatzea, beharrezko izanez gero.
- Ingurumen jasangarritasunaren politikak
- Klima aldaketak arindu eta hartara egokitzea.
- Energia planak
- Ingurumen plangintza, ebaluazioa eta zuzentasuna.
- Sailkatutako jarduerak
- Zarata kudeatzeko planak
- Ingurumen hezkuntza.
- Lurraldearen antolamendua
- Hirigintza planeamendua
- Hirigintzako kudeaketa eta diziplina.
- Lurralde Informazioa

Hori guztia zuzendaritzak berez dituen eskumenen esparruan, dekretu honetan ezarritakoari jarraituz.

### **9. artikulua. Ingurumen eta Hirigintzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua**

Ingurumen eta Hirigintzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuari, zuzendaritzari eskainitako laguntza tekniko eta administratiboari dagokienez, honako eginkizunak dagozkio:

- a) Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea aurrekontuaren aurreproiektua egiterakoan, eta aurrekontuaren jarraipen ekonomikoa eta kontularitzakoa izapidetzea, bai eta haren aldaketak ere.
- b) Aholkularitza ematea sailari, administrazio xedapen eta ebazpenak proposatu eta egitea, eta sailari dagozkion gaiei buruzko hitzarmena egitea.
- c) Sailari aholkularitza ekonomikoa eskaintzea eta zuzendaritzaren espedienteen kudeaketa ekonomikoki eta kontabilitateari dagokionean antolatu, ikuskatu eta izapidetzea.
- d) Sailari dagozkion gaietan kontratazio espedienteen aholkularitza eman, kontrolatu eta izapidetzea.
- e) Zuzendaritzaren menpe dauden zerbitzuek bideratutako espedienteen parte administratibo komuna izapidetzea, EBk edo beste administrazio batzuek eta erakundeek Politika Ekonomiko, Finantzario eta Europako Gaien Zerbitzuarekin batera finantzatutako laguntzen jarraipena barne.

f) Sailari dagozkion gaietan zehapen espedienteak bideratzea eta izapidetzea administrazio ebazpen eta ekintzen aurka aurkeztutako administrazio errekurtsuak.

g) Arabako Foru Aldundiaren aurka sailari dagozkion gaietan jarritako ondare erantzukizuneko erreklamazio espedienteak bideratzea eta izapidetzea administrazio ebazpen eta ekintzen aurka aurkeztutako administrazio errekurtsuak.

h) Laguntza eta dirulaguntzen arloko espedienteak kudeatu, aholkua eman eta kontrolatzea.

i) Diru sarreren aurrekontuari dagozkion diru sarrerak kudeatu, kontu izapidetzea egin eta kontrolatzea.

j) Sailaren gastuen aurrekontu partidei dagozkien fakturen ordainketa kudeatu, kontu izapidetzea egin eta kontrolatzea.

k) Arloko araudi aplikagarria eguneratzea eta artxibo eta erregistro lanak egitea zuzendaritzako espediente eta agiriekin.

l) Zuzendaritzaren barruan gardentasuna, herritarren partaidetza eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen erabilera garatu eta erraztea.

m) Ingurumen eta Hirigintza Sailaren web orria koordinatzea, bai eta hura garatzen duten atariak ere.

n) Esleituta dituen eskumenak fiskalitate jasangarriaren arloan, kasuan kasuko zerga prozeduraren barruan.

o) Langileen administrazioa, zuzeneko solaskidea izateko Funtzio Publikoko Zuzendaritzako unitateekin.

p) Sailari dagozkion gaiei buruzko berariazko programak sustatu, garatu eta burutzea.

q) Sailaren plan estrategikoan adierazten diren helburuak lortzen laguntzea ekintza planaren bidez, gainerako zerbitzuekin koordinatuta.

r) Agintzen zaizkion ekintza planak idazten eta gauzatzen laguntzea.

s) Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak agintzen dizkion gainerako eginkizunak.

### **10. artikulua. Natura Ondarearen Zerbitzua**

1. Natura Ondarearen Zerbitzuari honako eginkizun hauek dagozkio:

a) Natura ondarea zaindu eta lehengoratzea.

b) Aldundiari dagozkion arloetan, araudiaren jarraipena egin eta betetzen dela kontrolatzea, eta honako hauen zaintza eta jarraipena egitea: Arabako Lurralde Historikoko habitatak eta fauna eta flora espezieak, parke naturalak, biotopoak, zuhaitz bereziak, Europar Batasunaren garrantziko lekuak, Natura 2000 Sareko hegaztien kontserbazio bereziko eta babes bereziko eremuak, Nazioarteko Garrantzia duten Ramsarreko Hezeguneak.

c) Arabako Lurralde Historikoko naturagune babestuak kudeatzea. Horretarako, besteak beste, erabilerak eta jarduerak baimentzeko administrazio espedienteak izapidetuko dira eta baliabideen aprobetxamenduen berri eman, naturaguneen sistema naturalen azterlanak sustatuta eta horien natura balioak kontserbatzeko, ezagutzeko eta zabaltzeko komeni diren jarduketak proposatu eta eginda.

d) Zerbitzuari dagozkion zaintza zuzentzea.

e) Naturagune babestuetan zehapen espedienteen izapideak egitea.

f) Ekosistemek ematen dituzten zerbitzuak, horien erabilerak eta aprobetxamenduak babestea, biodibertsitatearen babesa, baliabideen jasangarritasuna eta landa eta hiri giroko jendearen eskabideak bateragarri bihurtzeko.

- g) Natura kontserbatzearen arloko inbertsio, jardun eta azterketa programak egitea.
- h) Baliabide naturalen antolamendu planak, Arabako Lurralde Historikoko parke naturalen erabilera eta kudeaketarako plan zuzentzaileak eta Natura 2000 Sarea kudeatzeko planak egin eta garatzea.
- i) Naturagune babestuetako aisialdi areen mantentze-lanak egin eta kontserbatzea.
- j) Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartutako basoko fauna eta flora kudeatzeko planak egin eta betearaztea
- k) Geodibertsitatearen babesak sortutako planak eta jarduketak egitea.
- l) Zerbitzuaren aurrekontua egin, kontrolatu eta betearaztea, ekonomia eta aurrekontu arloan kudeaketa zerbitzuaren jarduna gorabehera.
- m) Zerbitzuari dagozkion gaiei buruzko berariazko programak sustatu, garatu eta burutzea.
- n) Toki erakundeei natura ondarearen arloan laguntza eta aholkularitza tekniko eskaintzea.
- o) Sailaren plan estrategikoan adierazten diren helburuak lortzen laguntzea ekintza planaren bidez, gainerako zerbitzuekin koordinatuta.
- p) Agintzen zaizkion ekintza planak idazten eta gauzatzen laguntzea.
- q) Parke naturalen zuzendari-artatzailearen eginkizunetan jardutea, kargu horretarako beste inor izendatzen ez bada.
- r) Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak agintzen dizkion gainerako eginkizunak.

#### **11. artikulua. Naturaguneen eta Biodibertsitatearen Atala**

Atal horri honako eginkizunak dagozkio:

- a) Azterlanak, erroldak eta diagnostikoak egitea biodibertsitatea ezagutzeko eta horren jarraipena egiteko.
- b) Biodibertsitatea mantentzeko eta hobetzeko jardun proiektuak eta plangintzak planteatu, garatu eta gauzatzea, bai eta kudeatu, babestu eta lehengoratzeko ere: ekosistema eta habitat naturalak, fauna eta flora espezieak, biotopo babestuak, zuhaitz bereziak, Europar Batasunaren intereseko lekuak eta Natura 2000 Sareko hegaztien kontserbazio bereziko eta babes bereziko eremuak eta espezie mehatxatuen interes bereziko areak.
- c) Honakoak idazten parte hartzea: baliabide naturalen antolamendu planak, erabilera de kudeaketarako plan zuzentzaileak, eta Natura 2000 Sareko hegaztien babes bereziko eta kontserbazio bereziko guneak, nazioartean garrantzia duten RAMSAR izeneko gune hezeak izenekoaren kudeaketa planak, bai eta biotopo babestuen sarea, zuhaitz berezien, eta arriskuan dauden basoko floraren eta faunarenak ere.
- d) Animalia Basatien Berreskurapenerako Zentroa administratu eta kudeatzea.
- e) Hegazti Nekrofagoen askak eta espezie nekrofagoen babes zonak administratu eta kudeatzea.
- f) Espezie inbaditzaileak, izurriteak, aparteko egoerak edo hondamendiak kontrolatu eta horien jarraipena egitea
- g) Ehizarako ez diren animalia espezieek eragindako kalteen konpentsazio ekonomikoak ebaluatzea eta kalteordainen espedienteak kudeatzea.
- h) Biodibertsitatearen arloko araudiari buruzko txosten teknikoak egitea.
- i) Atalari dagozkion gaiei buruzko berariazko programak sustatu, garatu eta burutzea.
- j) Sailaren plan estrategikoan adierazten diren helburuak lortzen laguntzea ekintza planaren bidez, atxikita dagoen zerbitzuarekin koordinatuta.

k) Agintzen zaizkion ekintza planak idazten eta gauzaten laguntzea.

l) Goragoko organoek agintzen dizkioten gainerako eginkizunak.

## **12. artikulua. Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzua**

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari honako eginkizunak dagozkio:

a) Arabako Ibilbide Berdeen Sarea antolatu, zaindu, sustatu eta kudeatzea.

b) Ibilbide berdeen sarea eta probintziako parkeen erabilera publikoa egokitu, lehengoratu eta moldatzeko jardun plan eta proiektuak landu eta kudeatzea, beharrezkoak diren obrak eginda, baita horiei lotutako espazioak, ibilbide sarea eta azpiegiturak administratu eta kudeatzea ere.

c) Arabako Ibilbide Berdeei buruzko 1/2012 Foru Arauak eskatzen dituen erabilera eta jarduerak antolatu, sustatu, baimendu eta kontrolatzeko eginkizunak betetzea.

d) Lurraldeko egitura berdeen plangintza egitea.

e) Paisaiaren eta konektibitate ekologikoaren babes, lehengoratzeko eta hobekuntza alorretako jarduerak planifikatu, garatu eta gauzatzeko.

f) Paisaiarako ikerketak eta diagnostikoak egitea, Paisaiaren Behatokia eta Jasangarritasuna koordinatuta.

g) Jasangarritasuneko eta Ingurumen Ebaluazioko Txostenak ikuskatu eta koordinatzea, baita Foru Aldundiak egin behar dituen ingurumen eraginari buruzko adierazpenak ere.

h) Ingurumeneko Informazio Sistemak garatzen eta kudeatzen laguntzea.

i) Ingurumenaren inguruko hezkuntza eta sentsibilizazio programak eta jarduerak bultzatu eta garatzea eta ingurumenaren arloko parte hartzea sustatzea.

j) Planifikatzea ingurumen baliabideak eta abiaraztea Garapen Jasangarriko eta Aldaketa Klimatikora egokitzeko planak, programak eta ekintzak.

k) Energia berriagarrien arloan jarduketak agindu, garatu eta gauzatzeko, energia horiek erabiltzeko programak proposatu eta prestatuta eta horretarako jarduketak gauzatu.

l) Ingurumen eraginaren ebaluazioaren, eta ingurumenaren kalitatea berreskuratu eta hobetzeko eta Hondatuta dauden guneak lehengoratzeko plan, programa eta proiektuen arloko jarduerak burutzea

m) Aldundian ingurumen kudeaketa aurreratuko sistema eta prozesuak bereganatzea sustatzea eta beste sail batzuekin batera lan egitea horiek ezartzeko.

n) Garapen jasangarriari dagokionez, zuzendaritzari lagundu behar dio jasangarritasunaren arloko ekintza estrategiak eta planak sustatu, garatu eta burutzen, udal arteko jarduerak koordinatuz.

o) Tokiko Agenda 21 sustatu eta horren jarraipena egitea.

p) Zerbitzuaren aurrekontua egin, kontrolatu eta betearaztea, ekonomia eta aurrekontu arloan kudeaketa zerbitzuaren jarduna gorabehera.

q) Zerbitzuari dagozkion gaiei buruzko berriarazko programak sustatu, garatu eta burutzea.

r) Toki erakundeei ingurumen jasangarritasunaren eta aldaketa klimatikoaren alorretan laguntza eta aholkularitza teknikoa eskaintzea.

s) Sailaren plan estrategikoan adierazten diren helburuak lortzen laguntzea ekintza planaren bidez, gainerako zerbitzuekin koordinatuta.

t) Agintzen zaizkion ekintza planak idazten eta gauzaten laguntzea.

u) Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak agintzen dizkion gainerako eginkizunak.



**13. artikulua. Ingurumen Ebaluazioaren Atala**

Atal horri honako eginkizunak dagozkio:

a) Proiektuek, planek eta programek ingurumenean izango duten eragina aztertzeko jasangarritasunari buruzko txostenak, adierazpenak eta ebazpenak egin, proposatu eta izapidetzea, eta ingurumenaren kalitateari eragingo dioten edo Kontserbazio Bereziko Eremuei eta Habitat babestuei eragin diezaieketen plan, obra edo jardueretan bete egiten direla ikuskatu, jarraipena egin eta zaintzea.

b) Ingurumenaren zuzentasunerako eta ingurumena berreskuratzeko planak, proiektuak eta obrak idatzi, garatu eta kudeatzea.

c) Informatzea paisaia aldatzen duten proiektu edo jardueren paisaian duten eraginari eta horiek beren inguru naturalean integratzeko hartu beharreko irizpide eta neurriei buruz.

d) Parte hartzea ingurumenari buruzko informazio sistemak garatzeko eta eguneratzeko lanetan, eta, kudeatzea herritarrek ingurumenari buruzko informazioa izateko duten eskubidea erabiliz, zuzendaritzan jasotzen diren eskaerak.

e) Ingurumenaren Plangintza Estrategikoa abiaraztea

f) Ingurumen Eraginaren Ebaluazioaren arloko araudiaren txosten teknikoa egitea.

g) Atalari dagozkion gaiei buruzko berariazko programak sustatu, garatu eta burutzea.

h) Agintzen zaizkion ekintza planak idazten eta gauzatzen laguntzea.

i) Goragoko organoek agintzen dizkieten gainerako egitekoak.

**14. artikulua. Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua**

Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuari honako eginkizunak dagozkio:

a) Toki Erakundeei laguntza eta lankidetzak eskaintzea, uren, hondakinen, zaraten eta sailkatutako jardueren arloan.

b) Toki erakundeen eskumeneko uraren ziklo osoaren zerbitzuak osorik, modu eraginkorrean, arrazionalki eta era jasangarrian ematen dela zaintzea.

c) Erakunde kudeatzaileen ur hornidura, saneamendu eta arazketa zerbitzuak koordinatzea.

d) Idaztea lurraldeko plangintza hidraulikoa, eta, bereziki, koordinatzea plangintzaren eta horren eguneratzeen ondorio diren obra hidraulikoen eta jarduketaren garapena, onarpena, burutzapena eta kudeaketa.

e) Arabari eragiten dioten arro hidrografikoen plangintza hidrologikoan lankidetzan aritzea gai horretan eskumena duten gainerako administrazioekin.

f) Idaztea lurraldeko hondakin plangintza, eta, bereziki, koordinatzea plangintzaren eta horren eguneratzeen ondorio diren azpiegituren eta jarduketaren garapena, onarpena, burutzapena eta kudeaketa.

g) Lurralde Historikoari eragiten dioten planak egiteari, garatzeari eta gauzatzeari buruzko aholkularitza eman eta txostenak egitea, hornidura, saneamendu eta hondakin gaitetan.

h) Zarataren planak eta kudeaketa sistemak koordinatzea.

i) Argi kutsaduraren planak eta kudeaketa sistemak koordinatzea.

j) Larrialdi planak egin, kudeatu eta kontrolatzea, hornidura eskasiaren arriskuaren aurka.

k) Ikerketa hidrogeologikoari eta lurpeko uren prospekzioari buruzko ikerketak eta proiektuak egitea, bai eta kontrol piezometrikoari eta hidrometrikoari buruzkoak ere.

l) Bere eskumeneko jarduerak garatzeko proiektuak eta obrak egin eta zuzentzea, bai eta goragoko organoek agintzen dizkioten gainerakoak.

m) Zerbitzuari dagozkion gaiei buruzko berariazko programak sustatu, garatu eta burutzea.

n) Sailaren plan estrategikoan adierazten diren helburuak lortzen laguntzea ekintza planaren bidez, gainerako zerbitzuekin koordinatuta.

o) Agintzen zaizkion ekintza planak idazten eta gauzatzen laguntzea.

p) Sailaren lurralde informaziorako sistema mantentzen laguntzea, zerbitzu honi dagozkion alderdietan.

q) Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak agintzen dizkion gainerako eginkizunak.

#### **15. artikulua. Obra Hidraulikoen Atala**

Obra Hidraulikoen Atalari honako eginkizunak dagozkio:

a) Zundaketa eta ponpaketa lanak eta ur emaria kontrolatzea.

b) Behar diren jarduketak egitea Arabako Foru Aldundiak berak zuzenean eraiki behar duen azpiegitura hidraulikoaren lanak egiteko.

c) Zuzendaritzak azpiegitura hidraulikoaren arloan egin dituen inbertsioekin lotutako espedienteak gainbegiratzea.

d) Txosten teknikoak egitea atalaren berezko gaiei buruz.

e) Dagozkion eskumenak garatzeko beharrezkoak diren proiektuak eta obrak egin, zuzendu, ikuskatu eta kontrolatzea.

f) Atalari dagozkion gaiei buruzko berariazko programak sustatu, garatu eta burutzea.

g) Adituen balorazioak egitea obra hidraulikoekin lotutako gaiei buruz.

h) Agintzen zaizkion ekintza planak idazten eta gauzatzen laguntzea.

i) Zerbitzuaren buruak agintzen dituen beste eginkizun guztiak.

#### **16. artikulua. Ingurumen Prebentzioaren Atala**

Atal horri honako eginkizunak dagozkio:

a) Sailkatutako jardueri buruzko txostenak egitea, bai eta horiei buruzko ikuskaritzak egitea, neurri zuzentzaileak jartzea, arautegia betetzen dela ikustea, eta, beharrezkoa denean, zehatzeko prozedura ezartzea ere.

b) Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 9ko 9/2010 Foru Dekretuak agintzen dituen txostenak egin eta ematea. Dekretuak onartu egiten du garapen jasangarria, ingurumenaren zaintza eta hobetzea eta energia iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzen lagunduko duten inbertsioen komunikazioaren eta egokitasun ziurtagiriaren araubidea, sozietateen gaineko zergan xedatutako kenkarietarako.

c) Lurraldeko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Planaren eta etorkizunean egin daitezkeen eguneratzeen jarduerak garatu eta burutzea.

d) Hondakinak kudeatzeko planak eta proiektuak egin, garatu eta bideratzea, bai eta, Foru Aldundiari dagozkion eskumenetan, arautegia betetzeko ikuskapena egitea ere.

e) Eremu ahuletan eta balore natural berezikoetan hondakin bilketako zerbitzuak kudeatzea, baita Aldundiak kudeatzen dituen hiri hondakin birziklagarrienak ere.

f) Hiri hondakinaren kudeaketarako udalez gaindiko azpiegiturak kudeatzea Aldundiaren titulartasunekoak direnean edo horien kudeaketa tokiko erakundeek agindu diotenean.

g) Hondakinaren Behatokiaren jarduerak koordinatzea.

h) Hiriko inguruetan zarataren ebaluazio azterlanak gauzatzea, beharrezkoak diren integrazio eta zuzenketa neurrien ezarpena aztertzea eta soinu mailen jarraipena egitea.

i) Naturagune babestuei eta jatorri naturaleko soinu erreserbei eragiten dieten eremu akustikoak mugatzea, nor bere eskumenen arloan gai hauetan eskumena duten beste administrazio batzuen lankidetzan barne.

j) Argi kutsadura saihesteko azterketak egitea, balio astronomiko eta naturalistiko bereziko eremuetan, ekosistemen mesederako.

k) Agintzen zaizkion ekintza planak idazten eta gauzatzen laguntzea.

l) Atalari dagozkion gaiei buruzko berariazko programak sustatu, garatu eta burutzea.

m) Zerbitzuaren buruak agintzen dituen beste eginkizun guztiak.

### **17. artikulua. Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzua**

Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuari honako eginkizunak dagozkio:

a) Laguntza teknikoa ematea lurralde antolamenduari eta hirigintzarekin lotuta dauden eta Arabako Foru Aldundiaren eskumenekoak diren gaitan.

b) Arabako Foru Aldundiak sustatzen dituen lurralde planak planifikatu eta idaztea, eta parte hartzea Arabako Lurralde Historikoan eragina izanda beste administrazio publiko batzuek sustatu dituzten lurralde plan partzialak eta arloko lurralde planak prestatzen.

c) Udalen hirigintza arloko ekintzak sustatzea, bai planeamendu orokorra zein garapenerako planeamendua egiten, aholkularitza eta laguntza teknikoa eta finantzarioaren bidez.

d) Kontratazio organoetako adituen batzordeetan parte hartzea.

e) Zerbitzuak izapidetzen dituen espedienteak esleitu, aztertu eta kontrolatzeko eginkizunak betetzea.

f) Arabako Foru Aldundiari aurkeztutako espedienteen gaineko txostenak egitea, behin betiko onarpena emateko, bai eta administrazio ebazpena ematea eskatzen ez dutenena ere.

g) Gainbegiratzea Arabako Hirigintza Batzordeak egin behar dituen txostenen espedienteak.

h) Dirulaguntzak izapidetzeko eta dirulaguntzak emateko proposamena egitea, lurralde historikoko udalek egiten dituzten planeamendu orokorreko eta garapenerako tresnak gainbegiratzeko eta ingurumen azterketa estrategikoetarako.

i) Planeamenduko tresnen edukiaren normalizazioa sustatzea eta prestatzea, 2/2006 Legearen, lurzoru eta hirigintzarenaren, bigarren xedapen gehigarriaren arabera.

j) Hirigintza espedientei buruz saileko diputatuak edo diputatuen kontseiluak egin beharreko ebazpen proposamenak aurkeztea.

k) Ikuskatzea ondorengo hauen kudeaketa: hirigintza planeamenduko administrazio erregistroena, hirigintza intereseko taldeen erregistroena eta zerbitzuan sortzen diren bestelako erregistroena. Horiez gain, aipatutako erregistroak argitaratzen diren web orrien edukiak ere ikuskatu behar ditu.

l) Herritarrei balia bide elektronikoen bidez eskaintzea zerbitzuak sortzen duen informazioa.

m) Zerbitzuko administrazio unitateen kudeaketa zuzentzea eta kontrolatzea.

n) Sailaren plan estrategikoan adierazten diren helburuak lortzen laguntzea ekintza planaren bidez, gainerako zerbitzuekin koordinatuta.

o) Agintzen zaizkion ekintza planak idazten eta gauzatzen laguntzea.

p) Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak agintzen dizkion gainerako eginkizunak, duen jardueraren arloarekin lotutakoak.

### **18. artikulua. Hirigintzako Planeamendu, Kudeaketa eta Diziiplina Atala**

Hirigintzako Planeamendu, Kudeaketa eta Diziiplina Atalari hauexek dagozkio:

a) Aholkularitza juridikoa ematea Arabako Foru Aldundiaren iritzia eskatzen den eta, aldi berean, hirigintzaren eta lurralde antolamenduaren arloan eragina duen araudi orori buruz.

b) Laguntzea hirigintzaren arloko arauzko dekretuak eta garapen arauak egiten eta eguneratzen.

c) Aurkeztea lurzoru urbanizaezinean hornigaiak, ekipoak eta jardunak ezartzearen aldundian izapidetzen diren interes publikoaren adierazpenen espedienteen ebazpen proposamena.

d) Aztertzea Arabako Foru Aldundiak behin betiko onarpena eman diezaien aurkezten diren espedienteak ea egokitzen diren hirigintza legedira eta administrazio prozedurara, eta kasuan kasuko txosten juridikoa ematea.

e) Arabako Foru Aldundiak hirigintza arloko eginkizunak betetzean emandako ebazpenen aurka aurkezten diren errekurtsoen lege zuzendaritza egitea.

f) Lege zuzendaritza egitea lurraldeko udalek eskatzen duten hirigintza arloko administrazioarekiko auzi errekurtsuetan.

g) Lege aholkularitza ematea toki erakundeei zerbitzuarekin lotutako gaietan.

h) Herritarrek egiten dituzten lege eta hirigintza arloko kontsultei erantzutea.

i) Kudeatzea Hirigintza Planeamenduko Erregistroa eta Hirigintza Intereseko Taldeen Erregistroa, kasuan kasuko agirien inskripzioa egiteko aginduz eta agiri horiei buruz eskatzen diren egiaztagiria emanaz.

j) Aholkularitza juridikoa ematea hirigintzan eragina duten eskumenak dituzten aldundiaren gainerako sailei.

k) Era berean, behar bezala eguneratuta izan behar ditu erregistroak argitaratzen diren web orriaren edukiak.

l) Arabako Hirigintza Batzordeko idazkaritzaren eginkizunak egitea.

m) Lege aholkularitza ematea otsailaren 21eko 4/2011 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen mugak, izena, hiriburua eta ezaugarriak arautzen dituenak, ezarritako prozeduren izapideak egitean.

n) AFAREN ordezkariak egitea Arabako Nahitaezko Desjabetzeen Epaimahaian desjabetze espedientei dagokienez, eta hitzarmen, permuta, laguntza eta abarrak egiteko beharrezko diren hirigintza balorazioak egitea Arabako Foru Aldundirako, bai eta toki erakunde arabarrek eskatutakoak ere.

o) Izapidetzea aldeek eskaturik ofizios izapidetzen diren hirigintza ikuskapen arloko espedienteak, 2/2006 Legearen 218. artikuluan ezarritako eskumenen esparruan.

p) Agintzen zaizkion ekintza planak idazten eta gauzatzen laguntzea.

q) Zerbitzuaren buruak agintzen dituen beste eginkizun guztiak.

### **19. artikulua. Lurralde Informazioaren Atala**

Lurralde Informazioaren Atalak ondoko eginkizunak ditu:

a) Arabako Lurralde Historikoko informazio geografikoa batu, bildu, normalizatu, tratatu, produzitu eta zabaltzeko jarduerak arautzea, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien bidez, Lurralde Informazio Sistemak bitartez, hauexek osatuta:

– Foru Erreferentziako Ekipamendu Geografikoa, hauek eratuta: Erreferentziako Sistema Geodesikoa, Koordinatuen Sistema Ofiziala, produkzio kartografikoa (oinarrizkoa, deribatua eta tematikoa) eta fotogrametrikoa, eta lizendegi Geografiko eta Toponimikoa.

– Lurralde Informazioko Erregistroa, hauexek osatua: Kartografikoa, Lurralde Mugaketena eta lizendegi Geografiko eta Toponimikoa.

– Lurraldeko Datu Espazialen azpiegitura eta antzeko beste sistema batzuekiko operagarritasuna, lokalizazio, bistaratze, eraldatze, datu espazial eta deskarga zerbitzuak emanaz.

b) Organo eskudunari laguntza ematea Erreferentzia Nazionaleko Ekipamendu Geografikoa finkatu eta mantentzean, eta aldundiaren ordezkariak egitea estatu zein autonomia mailan informazio geomatikoa harmonizatu, tratatu eta informatizatzeko helburuarekin sortzen diren batzorde teknikoetan.

c) Toki erakundeek lurralde mugaketen mugaketa eta aztertze prozeduretan laguntza eman eta horiek izapidetzea, eta laguntza teknikoa ematea jabetza mugaketaren aldaketa prozeduretan eta espedienteetan.

d) Zerbitzu Sareak harrapatu, tratatu eta integratzea Lurralde Informazioko Sistematan.

e) Baserrientzako Larrialdi Sistemaren prestakuntza, mantentzea eta zabalkundea egitea.

f) Artxibategi Historiko Kartografiko eta Fotogrametrikoa mantentzea.

g) Kartografia ofiziala erabiltzeagatik ezarri beharreko araubide ekonomikoa proposatzea eta mantentzea Lurralde eta Hirigintza Informazioaren saltokia.

h) Arabako hirigintza dokumentazioa tratatzeko eta erregularizatzeko araupetzea eta lotutako sistema informatikoa proposatu, ezarri eta kudeatzea.

i) Hirigintza planeamenduko web orriaren edukia eskuratu eta administratzea, Hirigintza Planeamenduko Erregistroarekin batera, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien bidez arauzko zabalkundea egin dadin.

j) Atalari dagozkion gaiei buruzko berriak programak sustatu, garatu eta burutzea.

k) Agintzen zaizkion ekintza planak idazten eta gauzatzen laguntzea.

l) Zerbitzuaren buruak agintzen dituen beste eginkizun guztiak.

#### XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Zuzendaria ordezteko araubidea, hura kanpoan, gaixorik edo aldi baterako ezinduta egonez gero edo abstenitu edo errefusatu egonez gero, Kontseiluaren uztailaren 3ko 133/2015 Foru Dekretuan xedatutakoari lotuko zaio.

Bigarrena. Uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak, 18.3. paragrafoan ezarritakoa betez, xedapen honetan ezartzen den egitura organikoaren ondorio diren lanpostu zerrendaren aldaketak funtzio publikoaren alorrean eskumena duen organoak jasoaraziko ditu lanpostu zerrenden unean uneko egoerari buruz aldizka eguneratutako informazioa daukan dokumentu batean.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru Dekretu hau indarrean sartzeko denean, indargabeturik geratuko dira diputatuaren kontseiluaren azaroaren 8ko 66/2012 eta uztailaren 16ko 23/2013 foru dekretuak, arautzen dutenak Ingurumen eta Hirigintza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala.

#### AZKEN XEDAPENA

Onartu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean foru dekretu hau, ALHAOn noiz argitaratu gorabehera

Gasteiz, 2016ko otsailaren 9a

*Diputatu nagusia*  
**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**

*Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria*  
**AMAIA BARREDO MARTÍN**

